

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure zerbitzua aurrera eramateko hainbat enpresen laguntza izango dugu. Ez dugu modu ailsatuan lan egingo; izan ere, gure proiektuak beste enpresen beharra du bizirauteko.

Lehenik eta behin bizikletak erosiko ditugu BH Bikes-en bidez. Eibarren sortu egin zen enpresa bat da. Ezaguna da berrikuntzagatik, iraunkortasunarekiko konpromisoagatik eta txirrindularitza profesionalari eta amateurrari laguntzeagatik.

Badakigu enpresa honek nola lan egiten duen baita ze fidagarria den. Gainera, gure enpresaren balioekin bat egiten du eta hori ezinbestekoa da guretzako. Honek, hainbat motatako bizikletak eskura ditu, txikientzako eta helduentzako proposak direnak, ahalik eta segurtasun eta erosotasun gehiago izateko. Gainera, enpresa honetan argiak, kaskoa, txirrina... erosiko ditugu.

Gure enpresan garrantzi handia ematen diogu gure bezeroek inolako arazorik gabe bidaiatu eta abentura honetaz gozatu ahal izateari, eta horregatik prest gaude bizikletaz ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonak ere etortzeko. Horretarako, Handbikes enpresari desgaitasuna duten pertsonen egokitutako bizikletak erosiko dizkiogu.

Bidai hau aurrera eramateko, beharrezkoa da lo egiteko eta deskantzatzeko leku apropos bat. Horretarako, Euskal Herrian zehar dauden aterpetxeetan ostatu egingo gara. Oso garrantzitsua da guretzat eta enpresarentzat jendeak atsedean hartu eta erlaxatu ahal izatea, bizikletan ibilbide luzea egin ondoren. Horregatik, gure bezeroek merezi dituzten aterpetxerik onenak hartuko ditugu.

Bizikleta eta material guztia eramateko, furgoneta bat kontratatuko dugu. Furgonetak Enterprise Rent-A-Car orrian kontratatuko ditugu. Enpresa hau Gasteizen dago eta modelo asko ditu; horrela, eraman nahi dugun materialaren arabera, nahi dugun furgoneta eredua hartzeko oportunitatea dugu.

Enpresa jendeari iristeko eta ezaguna egiteko beharrezkoa da marketing plan bat egitea, eskuorriak, weborria... Hori dena kudeatzeko BSL marketing enpresak lagunduko gaitu. BSL marketing enpresa Euskal Herriko onenetako bat da baita oso aproposa gure enpresarako.

Aurretik esan bezela, gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua pertsona guztientzako bideratuta dago, honek esan nahi du dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako ere dela. Horretarako material eta aditu konkretu batzuk behar ditugu horregatik Montes Solidarios elkartearen laguntza izango dugu. Montes Solidarios, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Gasteizen kokatua, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako mendiko jarduera inklusiboak sustatu eta antolatzena bideratua. Helburua mendiko kirolerako sarbidea erraztea da, mendi-ibiliak eta eskalada egokituak eskainiz. Hori lortzeko, pertsonaitsuak edo ikusmen gutxikoak gidatzeko eta mugikortasun urriko pertsonak lur menditsuetatik garraiatzeko sortutako Joëlette aulkia erabiltzeko gaitasuna duten boluntarioak dituzte. Uste dugu, haiekin lan bikaina egingo dugula eta laguntza paregabea izango dela.

Diru kontuei dagokionez, Laboral Kutxan irekiko ditugu kontuak. Erakunde honek oso konprometituta dago tokiko ekintzaileekin, eta kredituak ematen ditu turismoa, jasangarritasuna eta berrikuntza sustatzen dituzten ideietarako. Proiektuetarako aholkularitza pertsonalizatua ere eskaintzen du. Gainera, Laboral Kutxak zure enpresa martxan jartzearekin lotutako kostuak estaltzeko berariaz diseinatutako maileguak eskaintzen ditu. Mailegu horiek ezin hobeak dira funtsezko alderdiak finantzatzeko, hala nola materialak, ekipamendua, ibilgailuak...

Administrazio-, lege- eta zerga-gaietan gestoria bat funtzeskoa da. Gure enpresak konkretuki Anitua gestoriarekin arituko gara. Gestoria bat oso erabilgarria izan daiteke turismo-enpresa batentzat, administrazio- eta lege-lan asko gidatzeaz eta hobetzeaz arduratzen baita, bestela denbora eta lan asko har dezakete. Adibidez, enpresaren kontabilitatea kudeatzen lagundu ahal du, faktura, ordainketa eta diru-sarrera guztiak behar bezala erregistratuta eta antolatuta daudela ziurtatuz. Hori funtsezkoa da akatsak saihesteko eta zerga-betebeharrak betetzeko.

Azkenik, diru-laguntza publikoak eskuratzea funtsezko bidea da Euskal Herrian zehar egingo den bizikleta-tourraren proiektua finantzatzeko. Eusko Jaurlaritza da horrelako proiektu bat babestu dezakeen erakunde nagusietako bat. Turismo jasangarria, kultura, kirola eta bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko diseinatutako hainbat programa eskaintzen dituzte. Programa horiek, oro har, landa-eremuen garapenari eta turismoaren kalitatea hobetzeari laguntzea dute helburu, ingurumena errespetatzen dutela eta tokiko komunitateentzat onuragarria dela ziurtatuz.